

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Tokioko aitona-amona lapurren balada

Gizarte postindustrialen zahartzearen ezaugarri batzuk ezagutu dira urteotan, esaterako, adineko jendea bere eroste ahalmenagatik salmentetarako target (jomuga) erakargarria izatea. Japoniak krisiarekin beste aurpegia darakuskigu: bizi ezinak delinkuentziara eraman ditzake zaharrak.

NARAYAMAKO BALADA EZ DUTE maite Japoniako gaurko zaharrek. Irakurlea oroituko da agian 1983an Cannes-eko jaialdian urrezko palma irabazi zuen *Narayamako balada* filmaz. XIX. mende erdian girotuta, 70 urte bete berriak zituen amak harri bat joz hausten zituen ahoko haginak, horrela behartuz bere semea erabaki latza hartzera: hortzaginik gabeko zaharrak Narayama mendira eraman eta han abandonatu behar ziren, aho bat gutxiagorekin herria bizi zedin, zaharren otordua ume eta gazte berriei emanez.

XXI. mendeko Japonian bada denek jateko beste, umeentzako adina erretretadunentzako. Baina ongizatearen gizarteko onurak denei iristen ez zaizkienez, zahar japoniar askok oso bestelako erreakzioa dute orain: itxuragabe ari da ugaritzen jende nagusien kriminalitatea.

Ikusi titular hau munduko kapitalisten eguneroko biblia den *Bloomberg* agentziak aurreko azaroaren 14an plazaratua: “Txirotasunak eta pentsioekiko beldurrak Japoniako zahar jendea delinkuentziara daramatzate”. Eta Pariseko *Le Monde* egunkariak abenduaren 8an: “Lapurreta egiten dute presondegira itzulteazarren”.

“Abuztu bukaeran gertatu zen –hasi da *Le Monde*– Tokioko udako bero itogarrian. Shibuya auzo *chiveko*

geltokian, bi emakumeri labankadaz egin zitzaion eraso. Gaizkilea 79 urteko emakumea zen, aterberik gabea eta altxortzat sakelana denetara 6.500 yen (53 euro) baizik ez zeramana. ‘Nora joanik ez neukan’, esplikatu zion abokatuari. ‘Poliziak ni beren gain hartzea nahi nuen’. Aste batzuk zeramatzan aterbekoentzako egoitza sozial batean, ez zeukan ez familiarik eta ez lagunik”.

Gertakizunak itxura bitxia du, baina antzekoak gero eta ugariagoak dira Japonian. Agintariak kezkatuta daude. Tokioko gobernuko Justizia Sailak gai honetaz 2008an aurkeztu duen dosierak kopuru itsusiak eskaini ditu. Kriminalitateari buruzko liburu zuri horretan diotenez, delitu kopuruek adin tarte guztietan egin dute behera, 65 urtetik gorakoen artean ezik. 48.605 zahar arrestatu dituzte azken urtean. 1986tik 65 urtez goitiko herritarren kopurua bikoiztu egin da, eta aldiz horien gaitakeriak bost halakotu.

Delituotan denetik dago, oldartze eta hilketak barne, baina batez ere lapurretak dira adinduen delitu nagusiak. Justizia Sailaren ikerketarako giltzapean diren 368 zahar galdezkatu dituzte, eta Toru Suzuki ikerlariak garbi dauka: “Kriminalitate honen sorburu nagusia baliabiderik ezean datza. Gehienek diote diru faltan daudela, gose direla...”.

Irudian, gizon adindua Tokioko karrika batean etzanda, berekin darमतзан puska guztien artean. Argazkia SG Forums gunean aurkitu dugu. Gaiaz Interneten aurkitu ahal izan dugun irudi bakarretakoa da, beharbada kontuok aipatzea Japoniako bezalako gizarte aberatsari lotsagarri zaiolako sukalde barruko mixeria erakustea. Etxerik gabek asko ugaritu dira urteotan Japonian, baina anitzez gehiago dira marjinalitatean bizi diren 65 urtez gorako herritarrak. Espetxeetan daude 30.000, kondenatuak orotara ia 50.000 izan direlarik, lapurretatik erdiak baino gehiago, baina beste asko eraso bortitzengatik. Japonian eztabaida zabalik dago zaharren bazterketa ekonomikoaz, haien bakardadeaz eta familia ereduaz.

Japoniako ekonomiak behera egin duen abiada berdintsuan egin du gora adinduen delinkuentziak. Atzerakada ekonomikoan murgilduta, gobernuak defizita kontrolatzeko neurrietan eman ditu ahaleginak eta aurrekontuan egin diren mozketekin herritar ahulenez bizitzeko ezintasun handiagoa dute. Horri erantsi behar zaio orain iritsi direla erretretara *baby boom* famatuko haur haiek, Japoniako zaharren kopurua inoizko gorenera eramanez.

Hiru otordu eta norbaiten solasa

Bakardadeak ere bultzatzen ditu jende nagusiak delituetara. Kroniketan aipatzen dira emakume adinekoak supermerkatuetan osten dutenak, arrestatu ditzaten, norbaitekin hitz egin ahal izateko. Horietako asko, gainera, ez dira kontatzen delituen atalean, eta poliziak lanez itota omen dabilte.

Kasu larrienak gertatzen dira biak, pobrezia eta bakartasuna, batzen direnetan. Ikerketak aipatzen ditu gizonezko alargundu berriak, diru oso gutxi jasotzen dutenak eta azken irtenbidetzat delituen bat burutzen dutenak, nahiago dutelako espetxekeo epeltasuna. Ondorioz, presondegitik atera ondorengo etengabeko atxilotzeak ere ugariak omen dira.

*Le Monde*ko kazetariak gaiaz galdetu dio Tomomi Fujiwara-ri, *Boso*



Rojin (Zahar haserretuak) liburua-
ren egilea berau. “Garai batean
famiako eta herriko loturek babes
bat ematen zuten, horrelako jokabi-
deak mugatuz. Delitua egitea kasik
suizidio soziala zen. Baina zaharren
bakardade gero eta handiagoarekin,
hori ez da horrela gertatzen. Gaiz-
kileok ez dute kulpabilitate bera
sentitzen”.

Bloombergen Masahiro Yamada
soziologoak ñabardura bat gehitu
dio aurrekoari. Yamadaren ustez,
orain zahartu den belaunaldia Bigar-
ren Mundu Gerra osteko nahas-
menduan hazitakoa da, Japonian
delinkuentzia inoizko ugariena izan
zen garaian. Ez omen daukate erru-
dun izateaz aurreko eta ondorengo
belaunaldien sentimendu bera.

Ororen buru, Japoniako espe-
tzeak 65 urtez gorako jendez
mukuru daude. 2000.ean 10.000
izanik, gaur 30.000 inguruan dabil-
tza. Gobernuak aurten bertan
8.300 milioi yen (67,8 milioi euro)
bideratu behar izan ditu zaharren-
tzako hiru presondegi berri eraiki-
tzeko, bakoitza 1.000rentzat. Nor-
baitek esango du espetxeetan
gastatu behar izan dutela laguntza
sozialetan aurrezturikoa.

Japonia, hain aberatsa izanik,
ondasunak gaizkien banatuta dauz-
katenetakoa da. Munduko 30
herrialde aberatsenen artean, kon-
tatuz gero zenbat herritar bizi diren
herrialdeko irabazien mediaren
erdiaren azpitik kobratuz, Japonia
dago azken lauetan.

Zahar jendearen delituak ugaritu
dira ekonomiaren egoera honda-
tzearekin batera. AEBetan eta Erre-
suma Batuan bezala, Japonian ere
Euskal Herrian baino urtebete lehe-
nago nabaritu dira atzerakadaren
haginkadak. Industriaren produk-
zioak behera eginda, komertzioeta-
ko salerosketak hondoratuta, etxe-
bizitzen merkatua blokatuta,
berehala nabaritu dira ondorioak
langabezia kopuruetan eta bizirau-
teko laguntza sozialak behar dituz-
ten familietan.

Zaharren delinkuentziak era-
kutsi die japoniarrei herritar ahule-
nak babesik gabe geratu direla
urteotan. Adineko jendeari bizile-
ku egoki eta merkeak eskaintzeko
egiturak eraiki dira batean eta bes-
tean, zerbitzu amankomun eta
guzti, baina urriegiak dira gizartean
den eskari izugarriarentzako. Bes-
talde, etxez etxeko zerbitzuak oso
garesti daude eta zaharretxeak ber-
din, erretreta xumea geratu zaienek
ezin dute amestu horietakoren
batean sartzerik.

Kronikek diotenez, Tokioko
gobernuak neurriak hartu eta
aurrekontu handiagoak agindu
ditu. Baina gizarte osoak beharko
du mobilizatu. Orain arte ezagutu
gabeko arazoekin egin baitu topo.
Japonian 127 milioi biztanleetatik
%22,1ek 65 urte gaingituak ditu
gaur. Prospektibek diotenez,
2050erako adin horretakoak %40
izango dira. ■

www.argia.com/nethurbil.php
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Zerbitzua.

Zerbitzu integrala, pertsonalizatua, hurbila eta etengabea.
Horixe da gure konpromisoa.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net

